NERE KABIA KALEA

B5

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimia):
Arana kondearen etxearen izena "Nere kabia" zan eta inguru horretan egoan. Gerra Zibileko bonbardaketan hondatu zan.

Muga geografikoak

Kale nahiko laburra eta barria da. San Juan kaleak mugatzen dau hegoaldetik eta Don Tello kaleak iparraldetik.

Ezaugarri historikoak

Teodoro de Arana y Belaustegui jaimismoren (karlista) ordezkari nagusienetariko bat izan zan, publizista eta politikoa, diputadua eta senadorea eta "Comunión Tradicionalista" alderdi politikoaren Bizkaiko Jaun Nagusia 1922. urtetik aurrera.

B4

OCHO DE ENERO KALEA

Izenaren etimologia:

Kale honen izenak Gernikako uria eta Lumoko eleizatea bat egin ziraneko eguna dakarzku gogora. Aurretik Barrenkale Barrena izena izan eban.

Muga geografikoak

Iparraldean San Juan kaleagaz egiten dau bat eta hegoaldean Adolfo Urioste kaleagaz. Mendebalderantza Andra Maria kaleraino ailegetan da.

Ezaugarri historikoak

Kale honen jatorria errekatik etorren Ibaiadar deituriko ur eremu baten dago. Errekatxu edo ubide hori gaur eguneko Portu kaletik, San Juan Ibarratik eta Ocho de Enerotik joian Iparragirreraino. 1850ean lehortu eta lurrez bete zan ur korronte hori. Gaur egun lurpetik doan errekasto horren ibilguak muga egiten eban lehen Lumoko eleizatearen eta Gernikako uriaren artean. Halanda ze, ez zan uriaren kalea, bere esparrua bitan zatituta egoalako udalerri bien artean. Izatez, gainera, kale horretako herri-lurrak "proindiviso" lez agertzen ziran eta Errebal izena eukien.

Edifizio aitagarriak

Liceo Antzokia (Zinema-Teatroa): 1922an edegi zan. Teodoro de Arana y Belausteguirena (Arana kondea) zan, eta herriko kultur gunerik inportanteena izan zan. 1937ko apirilean bonbardaketan hondatu ostean, 1945ean barriro altzau eben. Zabalik egon zan 1989ko garagarrilaren 31n itxi eben arte. Azkenez, oraintsu (2002) barriro zabaldu da barriztau ondoren.

"Artes y Oficios" Eskola: gaur eguneko Domingo Alegria plazearen aurrez-aurre egoan, kalearen mendebaldean. Bonbardaketan hondatu zan.

PABLO PICASSO KALEA

B4

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Pablo Picasso (1881-1973) sormen handiko margolari malagatarra izan zan eta abangoardiako pintura estilo guztiak jorratu ebazan. Bere nazinoarteko lanik ezagunenetariko bat "Guernica" koadrua izan zan, 1937ko apirilaren 26an "Condor" Leginoaren hegazkin alemaniarrek egin eben bonbardaketa eta sarraskia salatzeko egina.

Muga geografikoak

Iparraldean Adolfo Urioste kaleagaz egiten dau mugea, hegoaldean Industria kaleagaz eta mendebaldean Eriako Lorategiagaz.

Ezaugarri historikoak

Hasiera baten kale honek bat egiten eban Eria osoagaz. Haren inguruan Errebal izena eukan etxe moltso bat egoan. 1770erako, Errebal lau etxek, Portaleko torretxeak edo Eriako tabernak eta Zarate torretxeak osotzen eben. Azken hau Ibarguentarrena zan eta bertan hartu eban ostatu Fernando Errege Katolikoak Gernikara etorri zanean Foruak zin egiten, 1476ko garagarrilaren 30ean (horrexegaitik izan dau kale horrek errege horren izena luzaroan). XVI. mendean Rodrigo Ortiz de Zaratek barriro altzau eban.

Errebalen ekialdetik, gaur eguneko Portu, Ocho de Enero, Adolfo Uriostek galdutako "Lavadero" kaleagaz egiten eban gunea eta Iparragirre kalea hartzen ebazan ur korronte bat egoan, Saraspeko ibar alderaino heltzen zana. Ubide horrek XIX. mendean Geltoki plazatik hur Adolfo Urioste kalean egoan etxe bati emoten eutsan izena: Ibaibarria. Aitatutako ur korrontea aprobetxatuz "lavadero" bat egin zan. Bertara heltzeko bidetxuari "calle del Lavadero" izena emon eutsien, gaur egun Pablo Picasso, Iparragirre eta Geltoki plazako etxe batzuk eratzen daben patioek hartzen daben eremuan. XIX. mendearen amaieran errekasto hori estali egin zan eta, gaur egun, aitatutako kale horreen azpitik doa.

XIX. mendean Eria birkonpontzen hasi ziran. Horretarako, Zarate torretxea bota egin eben eta beste etxeakaz lerrotu ondoren, Eriabarrena kalea edegi zan, gerora Fernando Katolikoa izan zana.

1882an Lumok eta Gernikak bat egin eta gero, Udalak Erian egozan hainbat etxe erosi eta bota egin ebazan, inguru hori eta Fernando Katolikoa kalea zabaltzeko eta hobetzeko. 1981ean, Picassoren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko, Pablo Picasso izena ipini eutsien kaleari.

Lumoko Udalak betirik izan dau kale horretan taberna bat: "Taberna del Portal". Tabernearen aurrez-aurre, eta hango gorakadatxua aprobetxauta, harmaila batzuk egin ziran bertatik jenteak hobeto ikusi eizan bertako probalekuko idi-probak.

Edifizio aitagarriak

"Taberna del Portal y Abacería": "Taberna del Portal", Eriako torrea edo Eriako taberna (hiru izenak bat dira) XVII. mendetik ezagutzen da. Taberna eta janari-denda zan Lumoko eleizatearentzat. Bat egitearen ostean alondegi eta hiltegi moduan erabili zan 1912ra arte. 1915ean edifizioa Pedro Olivaresek erosi eban subastan.

Probalekua: kale horren mendebaldean egoan, Eriaren ondoan. Urte barruan idi-proba garrantzitsuak izaten ziran. 1925ean galdu egin zan beste probaleku bat egin zalako frontoi barriaren barruan.

B4

PASEALEKUA

Izenaren jatorria

Izenaren etimilogia (toponimoa):
Paseatzeko lekua edo ingurua.

Muga geografikoak

Laukizuzen baten antzekoa da. Aurreko aldeak mendebaldera emoten dau, eskumakoak iparraldera eta ezkerrekoak hegoaldera.

Ezaugarri historikoak

Antxina toki horretan harrobi bat egoan. Gure herriaren historian zehar bertatik atera izan dira ereigintzarako materialak, baita uriko orube asko eta padurako toki batzuk lurrez beteteko bestekoak be, gure herriak gaur egun daukan egitura hartu arte.

Oraintsuago, "Guzur Arets" izenaz ezagutzen zan Lumoko eleizatearena izandako toki honek bilakaera nabarmena jasan eta herri-plaza itxura hartu eban azkenean. Plazearen eskumaldean Lumoko Udalak frontoia egin eban, frontisa mendebalderantza eta alboko hormea iparralderantza.

Gernika eta Lumoren arteko batasun ekitaldia berton izan zan 1882an. Orduan "Plaza de la Unión de Guernica-Luno" izena jarri jakon. 1883-85 artean frontoiaren gainean "Escuelas Públicas de Niños" eregi zan. Beranduago, beste aldean, neskena (1927), eta aurrez-aurre, mendebaldean, arkupe bat egin zan eskola alde biak lotzeko. Gainean, "Balcón Sacafaltas" izen zelebrea daukan terrazea egin zan.

Plaza buru egiten eban balkoi horren aurrean Udal Musika Bandak izan dauen azken kiosko egonkorra jarri zan. 1937ko bonbardaketan "Sakafaltas"eko arkupeetan babestokiak eratu ziran jentea aireko erasoetatik babesteko.

80ko hamarkadan eskilara bikotxa egin zan plazatik Sakafaltasera igoteko. Arkupeetan jubilauentzako egoitza bat egin zan. Terrazan bertan eskultura bat dago Espainiako Gerra Zibilean parte hartu eben Eusko Gudarien omenez.

Edifizio aitagarriak

Arkupeetako frontoia: plazearen iparraldean Lumoko Udalak frontoia egin eban (1853) eta mutilen eskola eregi zanean plazearen beste aldera eroan eban (1884). "Escuela de pelota Guerniquesa"k frontoi horretan lortu ebazan garaipenik handienak. Frontoi horren gainean nesken eskola altzau zanean, frontoia eta alboko hormea mantendu egin ziran, baina arkudun aterpe bat egin zan, gaur eguneko Arkupea.

Musika Kioskoa: 1934an Castor Uriarte udal arkitektoak diseinautako edifizio berezi honek bidea emoten deusku Pasealekuak jai girorako gune moduan izan dauen garrantzia komentetako. Berton hamaikatxu erromeria egin izan dira domekero eta jai egun guztietan Udal Musika Bandearen eskutik. Ekitaldi politikoak, kulturalak eta folklorikoak be ugariak izan dira, asteroko plaza eta merkatu gune izateaz aparte.

PEDRO ABOITIZ ISASI KALEA

B5

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Monseñor Pedro Aboitiz e Isasi abadeari omen egiteko ipini jakon kale honi izen hori gerra ostean. Abade hau kapilau izan zan karmeldarrakaz lehenengo eta Francoren aldeko soldadu Errekete talde bategaz gerra sasoian.

Muga geografikoak

San Juan eta Domingo Bernaola kaleakaz perpendikular dago, mendebaldean eta ekialdean.

Ezaugarri historikoak

60ko hamarkadan egin zan kale honek Monseñor Pedro Aboitiz e Isasi izena euki eban hasieran, lehenengo karmeldarrena eta gerra sasoian Errekete talde baten kapilau izan zan abade horren ohorez.

A4

A5

PEDRO DE ELEJALDE KALEA

Don Pedroren plana onartu egin eben hasieran. Itsasadarreko ur gazituak hartu eta eztainuzko alanbike beroetatik pasau eta jarraian arrozagaz zenbait aldiz egosi behar ziran garbitzeko.

Proiektua aurrera eroateko, Don Pedrok egindako aurrekontuen arabera, urtero 300 dukat behar ziran. Bera izan zan proiektuko bazkidea Gernikako Udalagaz batera, eta zuzendaritza bere esku geratu zan.

Gernikako Udala diru barik egoan garai haretan eta horregaitik beste erakunde batzuetara jo eban proiektua aurkezteko (Korrejidorea, Valladolideko Real Chancillería). Dana dala, 1758. urtean proiektuak ezetz borobila jaso eban, pozoitzeko arriskua egoala aitzakia moduan erabilita. Argi dago inork ez ebala egin gura 300 dukateko inbertsioa eta aditu horren beharra paperetan besterik ez zan geratu.

Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

1756. urtean Gernikak izugarrizko ur eskasia euki eban ur horniketan. Lumotik eta Txorraburutik etozan uren kanalizazino arazoak, batetik, eta Oka errekako ura bape fidagarria ez izateak, bestetik, ur faltaren arazoa areagotu egin eban.

Don Pedro de Elejalde gernikarrak, Salamancan ikasitakoak, ur hornikuntzari erantzuna emon nahian, itsasadarreko ura gazatzeko proiektua aurkeztu eban Udalean.

Muga geografikoak

Hegoaldean Allendesalazar kaleagaz eta iparraldean Galtzada kaminoagaz egiten dau bat.

Edifizio aitagarriak

Kalearen hasieran eta ezkerreko espaloian **"Gernika Gernikara"** mosaikoa aitatu behar da. Bertan Picassok egindako "Gernika" koadruaren erreplika bat dogu.

Kale horretan aitagarriak dira **Ikusteder** Jauregia eta **Toñaren txaleta**, biak XX. mendearen hasieran egindakoak, nahiz eta lehenengoa erabarriturik dagoan.